

3. Pazko Igandea (C)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Gu gara honen guztiaren lekuko eta Espiritu Santua.

Eginak liburutik 5, 27b-32. 40b-41

Egun haietan apaiz nagusiak apostoluei esan zien:

– Ez al genizuen zorrotz agindu Jesusen izenean ez irakasteko? Zuek, ordea, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna leporatu nahi diguzue.

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten:

– Jainkoaren esana egin behar da lehenik, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak bere eskuinaldera altxatu du, buru eta salbatzaile eginez, Israeli bihotz berritza eta bekatuaren barkamena emateko. Gu gara honen guztiaren lekuko, gu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua.

Jesusi buruz hitzik esatea zorrotz debekatu zieten. Ondoren, askatu egin zituzten. Apostoluak Biltzar Nagusitik pozik atera ziren, Jainkoak Jesusengatik sufritzeko duin aurkitu zituelako.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 29, 2 y 4. 5-6. 11 y 12a y 13b

R.

Goratua zu, Jauna, onik atera bainauzu!

Goratua zu, Jauna, onik atera bainauzu!
Nire etsaiei ez diezu nire lepotik pozten utzi.
Jauna, Herio Leizetik atera nauzu;
hilobira jaistear nengoela, biziberritu. **R.**

Kanta Jaunari, haren fededunok,
goretsazue, santua dela gogoratuz.
Haren haserrea une baterako,
haren onginahia bizi guztirako.

Arratsean negarrez bagaude ere,
goizean berriro poz-oihuz. **R.**

Entzun, Jauna! Erruki nitaz!
Jauna, zatozkit lagun!
Negarra dantza bihurtu didazu.
Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango dizkizut beti. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Hila izan zen Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasunak, hartzeko.

Apokalipsia liburutik 5, 11-14

Gero, ikuskarian, tronu, izaki eta zaharren inguruan zeuden aingeru askoren ahotsa entzun nuen. Milaka eta milioika ziren, eta ozenki zioten: «Hila izan zen Bildotsa bada nor ahalmena, aberastasunak, jakinduria, indarra, ohorea, aintza eta gorespina hartzeko». Eta zeruan, lur gainean, lur azpian eta itsasoan dauden sorkari guztiei, hau esaten entzun nien: «Tronuan eserita dagoenari eta Bildotsari gorespina, ohorea, aintza eta agintaritza, menderen mendetan». Lau izaki bizidunek «Amen» erantzun zuten, eta zaharrek ahuspeztu eta gurtu egin zuten.

Jaunak esana.

Aleluia

Aleluia, aleluia.
Kristo, gauza guztiak sortu zituen, berpiztu da
eta gizadiak errukitu zen. Aleluia.

EBANJELIOA

Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman egin zien, baita arraina ere.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-19

Geroxeago, berriro agertu zitzaizkien Jesus bere ikasleei Tiberiades aintzira-ertzean. Honela gertatu zen agerpena: Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Tomas –Bikia zeritzana–, Natanael –Galileako Kanakoa–, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Hortan, Simon Pedrok esan zien:

– Arrantzura noa.

Besteek erantzun zioten:

– Zurekin goaz gu ere.

Irten eta ontziratu egin ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu.

Eguna argitu zuenean, aintzira-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien:

– Mutilok, baduzue jatekorik?

Haiek erantzun:

– Ez.

Jesusek esan zien:

– Bota sarea txaluparen eskuinera eta aurkituko duzue.

Hala egin zuten. Eta hainbeste arrain harrapatu zutenez, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela entzun bezain laster, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta salto egin zuen uretara. Gainerako ikasleak txalupaz joan ziren, sarea arrainekin tiraka zekartela, lehorretik hurbil baitziren, ehunen bat metrora.

Lehorreratzean, su-txingarrak ikusi zituzten, gaineen arrain bat zela, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetariko batzuk».

Igo zen ontzira Simon Pedro eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea apurtu.

Jesusek esan zien: «Etorri gosaltzera».

Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, ongi baitzekiten Jauna zena. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman egin zien, baita arraina ere.

Hirugarren aldia zen hau, Jesus, hildakoen artetik piztu ondoren, bere ikasleei agertzen zitzaiena.

Gosaldu zutenean, Jesusek esan zion Simon Pedrori:

– Simon, Joanen semea, maiteago al nauzu hauek baino?

Hark esan zion:

– Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana.

Orduan, Jesusek:

– Larra itzazu nire bildotsak.

Bigarrenez galdetu zion Jesusek:

– Simon, Joanen semea, maite al nauzu?

Pedrok, berriro:

– Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana.

Jesusek, orduan:

– Zaindu nire ardiak.

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek:

– Simon, Joanen semea, maite al nauzu?

Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion:

– Jauna, zuk dena dakizu, zuk badakizu maite zaitudana.

Orduan, esan zion Jesusek:

– Larra itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: Gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nora joan erabakitzen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun lekura eramango zaitu.

Horrela, Jainkoari aintza zer-nolako heriotzaz emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion:

– Jarraitu niri.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>